

IDATZ & MINTZ

Literatur atalen sorta

43

Aurkibidea: Adolfo Arejita: OTXOLUA ETA LITERATURA. **3**. Iñigo Roque Eguzkitza: KURTZEROAK DENPORAN. **12**. Jabier Kalzakorta: "BURUI-LAREN ONDARRA" EDO "LERTSUNAK LERRO-LERRO" AMODIOZKO KANTA. **16**. Asel Luzarraga: ATEZAINA (ZORTZI GARRODUNA). **27**. Jon Arego: LLORENÇ VILLALONGA (1897-1980): *BEARN EDO PANPINEN GELA*. **31**. Xabier Zalbide: KANABERATIK UGERRERA. **35**. Miren Ibarluzea Santisteban: POEMAK. **37**. LIBURUAK. **39**.

ARGITARATZAILEA
Labayru Ikastegia
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA

Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria

DISEINU EDITORIALA
Ikeder, S. L.



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2007ko uztailean, Baster S. L. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times eta Bodoni letra moldeez. Irudiak «More silhouettes», «2600 typographic ornaments», «The history of the illustrated book», «Children», «1800 woodcuts», «Classic spot ilustrations», «5000 vignettes francaises» eta «Oude rijmpjes en versjes» liburuetatik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1ngoia
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Euzko Lehen Publikaratu Baitzarantzikas
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Ministerio de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Otxolua eta literatura

1. Otxolua itzultzaile eta estilo-lantzaile

Bernardo Maria Garro (1891-1960), idazle-ezizenez “Otxolua”, itzultzaile-zereginen gailendu zan eta ez sorkuntzan, beste batzuk lez. Beste hizkuntzetako literatura-sorkuntza ederrak, edota atsegin begitantzen jakozanak, euskerara itzultzeari emon eutsan ardura nagusia. Beste batzuetan testuak egokitu edota zuzentzeari be bai. Baina itzultzaile estilista bat genduan Otxolua; helburutzat ez eban euskerara beste barik itzultzea, ezpada literatura-testu ondo hautatuak euskera onean iragazirik eta landurik eskaintzea. Gaurko euskaltzaleon begiz, Otxolua estilo onaren eredu gehiago da, itzultzailearena baino. Gehiago erakarri izan gaitu beti bere hizkera eder aberatsak itzulpenaren zehaztasunak edo beste ezerk baino.

Otxolua euskera zindoaren jabe zan jatorriz. Mundakarra genduan, eta Santi Onaindiak bere *EL*-n zehaztuten deuskunez idazleari berari zuzen jasota,¹ elebidun hazi eizen Bernardo Mundakako kaleartean. 19gn mende-akabuko eta 20gnaren hasierako urte goiztiarrak baziran be, Mundaka lako uri dotoreetan erdara polito sarturik egongo zan ordurako, eta gaztelania ez eze, ingelesa bera be. Ez da ahaztu behar itsasgizon-habia genduala Busturi-Mundaka inguru guztiori, Etxeitak *Josetxo*-n edertotxo zertzelatzen deuskunez. Baina berbertako herri-hizkera jatorra be bizi-bizi egoan orain mende bateko uritxoko kaleetan; ez bakarrik baserrietan. Eta Bernardo mutikoak hantxe portu inguruan sare-konpontzen eta arrain-beharetan ziharduen andra eta atsoen artean ika-

si ei eban herriko berbeta jariotsua gozaro. Berez ez horraitino; zaletasunak bizitzen dauen ekinaz eta gogoaz baino; gure mutikoa adi egongo jaken portuko andron autu eta jardunei, hareen ezpanai erioezan berba gozo zein garratzai. Otxolua idazleak Mundakako mutikozaroan beregandu eban hizkera-altxor ugari hori barik nekez ulertu daiteke haren hizluzko emaitza.

Ondoren Bilbora jauzia dator, han komertzio-ikasketak egin behar zituala-ta. Beste euskal idazle batzuen antzera, Bizkai-ko uriburua bihurtuko da Otxoluarentzat be bere euskalzaletasuna eta idazkuntza trebatu eta sendotzeko gune. Bizenta Mogel, R. M. Azkue, Kirikiño, Orixe, Lauaxeta, Erkiaga... eta beste hainbaten kasu antzekoa. Abertzaletasuna eta euskalzaletasuna borbor egozan Bilbon aldi horretan. Joera diferenteetako euskalzaleak baziran: Euzkeltzale-Bazkunakoak batetik, Azkue bestetik; Zamarripa lege zahar joerakoa be hor ebilen. Otxolua gazteagan sabindarren joerak eragin igarria izango dau, bai euskera-araun, bai pentsamoldean. Baina euskerea ez eban landu bere aldiko aldizkari eta egunkarietako euskal idatziak iruntsiaz bakarrik. Idazle klasikoak be gogoko zituan, eta susmau daiteke, Añibarroren *Esku-liburua* ez eze, Mogeldarrak, Astarloa eta beste idazle batzuen liburuak be irakurri izango zituala bere gaztezero lerdenean.

Zazpi urteko egonaldia Argentinan egin eta ostean (1910-1917) Euskal Herrian dogu atzera be. Ikuspegi zabalagoaren jabe dator, baita euskaldungoaren aldetik be: han eza-gutu ei zituan beste euskal lurraldeetarik hara joaniko euskaldun mordo; berbakera diferenteen jabe ziranak. Mundakan biziko

da aurrerantzean, baina Bilboko kultura-mogimentu biziari hur-hurretik darraiola. *Euzkadi* egunkaria eta hango euskalgintza-ren bihotz zan Kirikiño izango ditu lokarri nagusi. Egunkari horretan idatziko dau gehien, baina baita *Euzkerea* eta osteango aldizkarietan be gitxi-asko. Txiri-txiri eta aldiro-aldiro etenbako jardunean ekingo deutso Otxoluak idazteari. Eta gaurko unetik begiratuta, mordo ederra osotzen dabe berak egunkari-aldizkariotan garandutako aletxoak.

Gudu ostean be euskal kultura munduari atxikirik bizi izan zan, baina, egoereak aginduta, artean baino modu eta giro motelagotan. Gerra ostean “Nuevo Ateneo” eregi zanean, hango kide izan zan Mikel Arruza eta F. Krutwig legezko euskaltzaleakaz batera, eta Adolfo Careaga lako beste giro batekoakaz. Euskerazko eskolak emoten be ekin eutsan Mikel Arruzagaz batera. Baina ilun-aldikada horretan ez egoan aro onik euskeraz idazteko; era handirik be ez argitaratzeko. Gerraosteko idazkuntza-ahalegina apala gertatuko da, gerra aurreko aldi oparoaren ikusian.

2. “Euskeratu barik, euskaldundu”

Halantxe epaitu eban Mikel Zarate idazleak Otxoluaren itzultze-jarduna. Egin beharreko itauna hau da, izan be. Zertarako egiten eben belaunaldi haretako idazleek itzultze-ahalegin hori? Helburua ez zan, gaur izan leiteken erara, literatura unibertsala irakurle euskaldunari euskeraz opatzea, beste hizkuntza normalizatuetan jazo ohi dan lez. Itzulpengintza, euskal hizkuntza goi-mailaratzeko edota euskaldunen artean, batez be gaztetxoan artean hedatzeko estra-

tegia zan gehiago. Batetik, euskal hizkuntza idatzia gora jaso, maila literario on bat eskaini asmoz; euskera literatura onaren transmisore bihurtu. Bestetik, euskera jatorra eta aberatsa irakurleen artean hedatu, horretarako testu atseginak erabiliz. Bigarren helburu hau, ume eta gazteei begira sarritan.

Bilbon bertan gudu aurrean atera ziran itzulpenen artean aitatu leitekez, beste batzuen artean, Orixeren *Tormesko itsu-mutila* edo Joseba Altunaren *Grimm anaien ipuiñak*, izpiritu horren erakusgarri.

Giro horretan umotu zan Otxoluaren itzultze-lehia be. Liburu batez egin da eza-gun gerora. Italiaritik euskeratu eban G. C. della Croce-ren *Bertolda eta Bertoldin* liburuaz (Bilbo 1932). Baina *Euzkadi* egunkariaren euskal atalean egin eban berez lanik mardulena, astero-astero obra-txatal euskeratuak argitara emonez. Bere aldirako meritugarri da italiara edo englandera erabili izana iturri-hizkuntza legez, gaztelania ez eze. Euskeratik euskerara be moldatu eban obra bat baino gehiago: Jean Barbier-en *Ixtorio-Mixterio* lapurteratik bizkaieratu eban.

Modu librez itzultzen dau gehienetan: helburua ez da jatorrizko testuari estu lotzea, euskeraz emaitza literario ondo egina jaristea baino. Bertolda eta Bertondin-en testuan, kasurako, XVI. mendeko bizkai errefrau zaharrak txertatuko ditu, jatorrizko testuaren erruki handi barik.

Berari ondo deritxen berba-joko eta esakerak be ardura barik sartuko ditu berba-ekarrian erara jatorkozanean. Itzultze-modu libreaz jokatu dau, J. Mokoroak A. Campion-en *Erraondoko azken danbolinteroa-*

agaz edota Orixek bere itzul-lanetan jokatu eben antzera.

3. Ingelesetik euskerara

Eskaintzen dogun lehenengo testua, ingelesetik itzuli eban eta *Abere dontsuak* izenburuaz bateatu eban liburuaren lehenengo atalburua dozue. Egunkariaren orrietan atera eban atalka; ez osorik horraitino. Guduak eten eban bere atal jariora. Jatorrizko testutik euskeraz argitaratu barik gelditu ziranak ez dakigu euskeratu zituantzen. Baleiteke itzuli izatea, danak edo batzuk, baina idazlearen paperen artean ez dira azaldu, guk dakigula.

Zegaitik hautu ete eban obra hau euskeratzeko? Besteak beste umeentzako idatzia zalako, gaur Harry Potter izan daiteken antzera. Obra horrek orduko Inglateran bete eban arloagaitik: abereen bidez eta atsegin-tasunez umei bide zuzena, jokabide ona irakasteko ondua izan zalako. Otxoluak be antzeko asmoa bete uste eban gure gizartean hori euskeratzeaz.

Honetan zein beste edozein itzulpenetan, idazlearen ezaugarri nagusietariko bat, gudu aurreko aldi hatako sartaldeko idazleen berbera da: aranismoaren eragina, hatan be. Orixeren hizkeratik gehien urruntzen dan puntua aranisten purismo hau dogu. Orixek *grazia*, *kanta* eta halako hitzak arazo barik darabilzan bitartean, Otxoluak *eskar*, *abes(ti)* eta halakoak hobetsiko ditu.

Abere dontsuak-en testuan, pertsona- eta toki-izenak eurak be guztiz aranatar-girokoak dira: *Ingelanda* darabil Ingalaterra izendatzeko. Pertsona-izenetan, *Erroberta*, *Gerarta*, *Birkide* edo *Andoni* darabilz.

4. Euskeratik euskerara: sortaldetik sartaldera

Eskaintzen dogun bigarren lana Orixek euskerara bihurturiko Mistral-en *Mireio* elaberriaren bizkaierazko bertsinoa da. Atalburu bat baino ez: euskeratik euskerara itzultzean eredu eskaintzeko asmoaz beste barik egina, *Euzkadi*-ko bere irakurleak begipean dituala idatzia, eta egunkariak eskatzen eban neurria jagoten ebana, bestetik.

Otxoluak aurrean daukan testu nagusia ez da probentzala, Orixeren giputz-nafar antzeko euskera-eredua baino; erdialdeko euskera, baina sortalderantz gehiago jotzen dauena. Hari darraio Otxolua gehienbat esaldien, perpausen eta sintagmen egituran; baita lexikoan be, euskalki-diferentziak alde batera itxita. Izan leiteke, halanda be, jatorrizko probentzerazko edota frantseseko bertsinoren bat aurrean izatea be. Susmo hori hartu leiteke euskerazko bertsino biok aurrez aurre ipinita, ze pasarte jakin batzuetan bizkaierazko bertsinoa Orixerenetik polito aldentzen da.

Otxoluaren bizkaierazko bertsinoaren bereizgarrietariko bat, lexikoari dagokionean, iturri eta jatorri diferenteko hitzak erabiltean datza. Halan, Otxoluaren bizkaiera ekialdeko hizkeretara zabalik dago lexikokontuan, beharbada Orixerena lango testu bat aurrean dauelako. Ekialde eta erdi-ekialdeko tradizinozko hitzak beregantzeko ez dau galga gehiegirik, jakinaren gainean egiten dau; horretara Orixek darabilzan hainbat berba bere horretan ixten ditu: esaterako, *agoztegi*, ‘lastategi, sabai’, edo *maxiolari*, ‘destainari, isekari’, edo *peitu*, ‘eztasun, gabezia’ esangurakoa.

Gerra aurreko idazleetan zabal ebilen joerea da berez hori: nor bere euskalkiz idatzi arren, eraz onartzea beste hizkera-tradizinoetako berbak, berariaz norberen euskalkian kontzeptu jakin baterako hitz egokirik aurkitzen ez zanean. Pausu hori emotean, Azkueren hiztegia izan zan lagungarri nagusia: haren ondorik, erraz ikasi eikeen idazleok zein hitz nondikoa zan, eta euren estrategia literarioaren barruan sartzen zan lexiko-garraio hori. Literatura jagiago bati buruz lexiko-aberastasunak bere lekua bete behar eban, eta ezinbestekotzat jotzen eben idazkera-estiloa hobetzeko, auzoko iturrietara jotea, hitz-eskaintza ugariagoaren bidez idazkera aberatsagoa jadesteko lehiaren barruan.

Atzera arlora etorrira, eta itzulpenaren balioari oratuaz, autor daigun idazle baten hizkera edo hizkuntza-estiloa erakusteko, ez dirala egokienak hizkuntza beraren barruan egindako egokitzapenak, euskalki batetik besterakoak, esan gura da. Bardin jazoten da, kasurako, Añibarroren kasuan. Ez da bardin Añibarro arratiarraren *Esku-liburua* edo *Lora Sorta* irakurri, edota Axularren *Gero* edo *Geroko Gero*-ren egokitzapena egin; izan be, bigarren horretan, gura ez dala izanda be, hobenduago dago Axularrenera, bai syntaxian, bai lexikoan, bai hainbakoan. Otxoluarenean beste hainbeste jazoten da. Ez da bardin erderetatik euskeraturiko *Bertolda eta Bertoldin* edo *Aberedontsuak* lanetako hizkera eta hemengo bigarrena; zegaitik ze Orixeren hizkeraren mende dihardu hemen lanean, eta hizkera-proposamen asko eta asko ez dira bere kautatik urtenikoak, ezpada emonik jatorkoz Orixeren idatzian.



I. Abere dontsuak obraren
“Lehenengo gaua” kapituluaren I. Atala.

Lehenengo gaua²

I

Bazan behinola Ingelandako uri ospetsu baten Gilchrist abizeneko umedun sendi bat. Bost ziran umeok: Erroberta, hiru urte aginekoa, eta Kolete, seikoa; Gerarta eta Birkide etorzan gero, bederatzi urtekoak biak, bikotxak baitziran; eta Andoni hamabost urtekora arte ez egoan besterik, ez harez gehiagorik bere. “Alaba bi eta hiru seme, adinon ume”, esan izan eukeen zaharrrak, beraz.

Ama polit-polita eben umeok, eta aita bat barriz, Gilchrist buruzagia, barregarri-barregarria. Berak behinik behin, holan esan erorian: aita txito barregarria zala. Baina umeak ondo maite eben aita, eta aita hori zan langoxe aita izateaz atsegin handia eben. Gilchrist buruzagiak umeai³ esaten

eutsenez, ez ei zituzan berak berna biak, jaseko aitak izan oi zituezan langoak, eta antza, amak aitatzaoko aukeratu eutsenean, gizon piloak nahastean salgei egozan lekuren baten itsumustuan erosita ekarri ei eban etxera, belaun bata taketa bera baino zurrunagoa ebala ohartu barik. Baina umeak harro asko egozan holako aita bat izateaz, belauneko txokoa aitak Gudate Nagosian galdu izan ebala baekielako —bulartsu aberriaren alde gudukatuten eragoiolarik galdu bere—, eta atsegin handia izaten eben aitarren logelara joan eta aitak irabaziriko guda-dominak idoro eta azkaritan etorten jakezan mutil-lagunai erakusteaz.

Gilchrist buruzagiak, semeakaz gogait eginda egoalazkoa egiten eban beti, batez

bere, berak esan ohi ebanez, seme “zaharra-kaz”, eta barrien barriena izan ezik ez ei eban beste semerik maite; baina ume guztiak ekitsoen ondo bere, batxu bat etxetik landa eukiteaz bere ezin izaten ebalatsi⁴. Eta iluntze baten, lanetik etxera etorrita, semeak beti legez aita noiz etorrikoren zain aurkitutean, honan esan eutsen:

—Hemen zaree neure ume barrabanok? Eta neure zurrurutun txikia ohean dago ala? Barraban-barrabantxook, gogait eragin deustazue⁵ dagoaneko, eta etxe bat erosi dot hemendik urrun, urrun bere urrun, neure begietatik asagoan euki zakidezan. Bai, Brinkhampton-en!

Gerarta eta Birkide sorbaldetara igon jakozan, eta bazirautesen:

—Andoniganik hurre samar egoteko, beraz?

—Egin-eginean bere ez, bada! —esan eban Gilchrist buruzagiak pipea bizturik—, Andonik oporkaroetan⁶ bultzian etxera etorteko ordaindu behar izaten dauana aurreratuteko baino.

—Andoniren ikastetxetik hurrean al dago etxe barri hori? — itaundu eban Koletek.

—Bi anei-neurkin⁷ edo —esan eban aitak—; baina, mutil barraban hareganik hurre egon gura dodanik, uste bere ez egizue egin, uste bere. Hamabost urte luzetuzetan euki dot etxean, eta ez daukot gehiagore harentzako zudurik⁸.

Aitaren esakerok jolasgarri izaten zituzan umeak, Andoni oporkaroetan etxera etortzen zanean, bada aita eta biak ogi eta jaki legez beti ibiltzen ziran eta.

—Zelakoa da etxea, aitatxo? —itaundu eban Birkidek, jakinminak jota.

Honenbestez, Gilchrist anderea sartu zan. Harako zizulo⁹ baten jesarri zan eta Kolete belaun ganera igo jakan.

—Etxetzar ia zeharo hondatu bat da —esan eban Gilchrist buruzagiak—; baina, zuontzako nahiko eta lar bere bai. Baratz polit eder bat dau inguruan horraitino, baina amatxorentzat.

—Ez egizue jaramon —esan eban orduan Gilchrist anderea—. Berebiziko etxe maitagarria dozue, ene umeak. “Godorika Deunaren orubea” eritxon harako etxeabarren ganean eregikoa da. *Orubea* ba al dakizue zeri esaten jakon? Etxeren bat bere baratzagaz eta guztiagaz eregiteko behar izaten dan lekuari, eta beraz, Godorika Deunaren orubean atxina-atxina lekaidetxe bat zan, bere solairu eta haren inguruko baratz eta lur eta guztikoa. Lekaidetxe haren azterrenik ez dirau orain, solairuko apeo bat edo bi eta txadonea zanaren horma bazter bat izan ezik; baina oraingo etxea bere guztiz da zaharra, eta lehenagoko lekaidetxearen hondarren ganean eregia da. Han ez dago orain solairurik, baina etxe ostean zelai eder bat dago, ezker eta eskuma aldetik arantzaz hesiturik. Bestelako lekua ez dozue izango han, nahi dan jolas egiteko eta zelan gura ibilteko, batez bere barreneko alderdi zoragarri hatan, errekatxo polit-polita dago han, egon bere eta!

—Noiz joango gara? —itaundu eben umeak.

—Hilabete barru —erantzun eutsen aitak.

Ez ekien ondo zek itxaroten eutsen han.



2. *Mistral-en Mireio, Orixeren* *gipuzkeratik Otxoluaren bizkaierara*

I

Basakaranetako landetxea

Gaia. Artzain tartean jaioriko Josuri laguntza eskea. Aita-sume otzaragileak.

Provenzako neskatala bat dot abesgai. Bere gaztetango maite-minetan, Crautik itsasaldera gari-alorretan barruna jarrai gura deusat, nik, Omer handiaren ikasle apal honek. Mendietako neskea zanez, haren ize-na Crautik asago ozta zabaldu izan da.

Gaztetasun hutsa baino beste distigarririk izan ez arren bekokian, eta ez urre-burestunik, ez Damasko-ehunik jantzi harek, bakan-dera antzera aintzaldutea gura dot [/deusat], eta gure hizkuntza nardatu honek goraldudagiala ta laztandu dagiala, zuentzako, ene artzain eta nekezariantzako abestuten dot eta.

Nire aberriaren Jauna, artzain tartean jaioriko Urtzi horrek, sutu egizuz nire hitzok eta indazu arnasa. Badakizu zuk: orlegitzatan, eguzkiak eta inontzak ikuak heldu dituzanean, han dator gizona otso gosetiaren antzera, ta hara zugatzari igali guztiak erauzi.

Halan bere, zuk, abar akasturiko zugatz haretan, gizon irunsleak atzeman eziniko

ostrailen bat jagoten dozu, kimu eder artz usaintsua, Magdalenaetarako igali heldu ederraren kimua. Hataraxe doa hegatzia gosea asebetetera.

Abartxo hori dakust nik, eta haren ezoak hozkamin egiten deust; haizeak eraginda, badakust goiko oztinaren aurrean dardaraz orri ta igali betikorrakaz... Urtzi eder, Urtzi lagun, egizu txoritxoan abartxo hori nik atzi dagidan gure Provenza-hizkera honen hegoz.

Rodano ertzean, ugaldeko zuntzundi ta sarastietan urak miazkauten dauan txabola baten, otzaragile bat bizi zan. Semea lagun ebala, etxerik etxe ebilen eskualde hatako baserrietan, otzara zaharrak eta otar zula-tuak barriaztuten.

Behinola, zelaietan barruna joan joazela, ohi eban legez mimen sorta luze bana lepontan eroela, badinotso Bingenek aitari:

—Aita, begiratu eguzkia; ez al dozuz ikusten han behean, Magalona ganean, dendel egiten deusden hedoi pilak? Mordo harek pilotu balediz, landetxera orduko bustiko ete garean nago, aita.

—Ez, ez; orriak itsalsaldetik jabek haizea. “Rau” haizeak jo ezik, ez joat uste euri antzik joagunik —esan eban zaharrak.

—Zenbat buztarri dituz Basakaranetako landetxeak, aita? —dino Bingenek.

—Sei —erantzun eutsan otzaragileak—, eta Craun dan etxaguntzarik aberatsenatarikoa dok... Hara, oliodia ikusi, bai? Eta oliodi tartean hain nabari dozaan mahatsondo ta gingilurritz lerroak, ostera? Baina ederrena, horraitino —baerrikion bere buruari erantzu(n)ez—, ederrena eta aldats horretan bardinik ez jaukana, urteak egunik adina zugatz-inda izatea, eta lerro bakoitzean beste hainbeste ondo.

—Arranoa! Zenbat lagun behar ete dira hainbeste zugatzen olioak batuteko? —esan eban Bingenek.

—Guztiak batuten dozak —esan eutsan aitak—. Deunoro eguna heldu ezker, han dozak Bausko neska(ka)txak, zorro ta ehunetan oliaran gorriska ta gingilkarak betetuten hasi. Oliaran gehiago balitzok bere, pozik batuko laieukeek hareek, abestiakaz nahastean.

Jaun Anburtzi hizketan erraikiolarik, eguzkia mendi ostetan itzaldurik hedoitxoak nabar, eder margoztuten zituzan, eta itzainak buztarrien atzetik geldika-geldika etorzan apaitarako, eta behe-rago, larre gazietan, ilunduten hasi eban.

—Hots, larrainean bada agiri lastotegiko tontorra; ez dogu euri bildurrik —esan eban Bingenek.

—Toki hau aukerakoa dok ardientzat —erantzun eutsan otzaragileak—; udaldian lerdia jabek, eta negutean zabaldi harritsuak. Ez jauk (ez jagok) hemen ezeren peiturik, eta edozer dok toki honetan zoragarri: etxeganeari gerizpe egiten jeutseen zugatz abartsuak; mintegi tartean jinotsaan iturri ederra; udazkenean hustuten dozaan er-

launtzak eta orrilak irri egitean basakarane-tan iratxikiten dozaan erlakumeak.

—Ene!, eta niri atseginen jatana alde honetan, aita: etxaguntzako alabea —esan eban Bingenek—. Joan dan udan, gomutan badozu, batutzale-otzara bi eginerazo euskuzana, ta bere esku-otzareari belarriak ezarriaz euskuzana...

*Aita-semeak “Basakaraneta” landetxera –
Mireiok atseginez hartuten dituz –
Aparia ta apalondoko abestia*

Autuetan eragoiela heldu ziran landetxeko atarira. Neskatilea, zikirio-arrairi orriak ordu-xean emon eta atari aurrean jesarrita, egurastua hartuez, une hatan goruetan hasia zan.

—Gabon lagun guztiai —esan eban otzaragileak, mimenak lurtean itzirik.

—Jaungoikoak zorionekoak dizuzala —erantzun eutsan neskatileak—; burbilari goruburua ezarten dihardut hemen; hara... eta zuek? Nondik zatoze honen berandu? Valabregatik oiez?

—Hain zuzen be hortixek —esan eban otzaragileak—, eta Basakaranetako landetxea bidean dogula-ta, “goazen hara” esan dogu, “ta agoztegian lo egingo dogu”:

Hoinbestez, jaun Anburtzi ta semea, alperrari baten ganean jesarri ta, beste jardunik bago, hasitako otzara bateri eskualditxu bat emoten ekin eutsen. Eta sorta askatutik mimen bigunak harturik, gurutzetu ta bihurtu eragoien.

Bingenek ez zituzan arteragino hamasei urterik; baina mutil ederra zan, eskierki; lerdena ta arpegiz atsegina. Matraila-baltxua, egitan, baina lur baltziskeak gari ona beti ta morda baltzezko mahastiak ardao biziagoa. Mimenak gertuten ondo ekian eta antzez landuten zituzan. Baina lan txukunetan

barik, gehienetan zamarienzat bastak egiten eta landetxeetarako beharrenetariakoetan ekiten eutsan. Eta lur-otzar gorriak, esku-otzarak, errezto salduten diran seska-otzarak, ainar-itsuskiak eta abar bere, laster eta arin ekizan egiten, eta txukun eta esku trebez baizen ondo amaituak egin bere.

Lantzarretik eta otalurretik etxeratuak ziran landetxeko beharginak lanaldia egindakotzat, eta Mireiok, Basakaranetako neskatala lirainak, harritzko mahai ganean aparitarako eltzaria haixe hozkirritara eukan. Eta betearen betez ikara egiten eban erratilu zabaletik, mutil bakoitzak ezpelezko zaliak babak atarata bere txalia beteten eban. Otzaragilea ta semea, ordea, mimenak ehoten erraikioen.

—Hots, bazatoze aparitara ala ez, jaun Anburtsi? —esan eban jaun Erramunek, landetxeko ugazabak, ohi eban erre-antzean.

—Tira, itzi otzara hori. Ez dozuez izarrak urtetan ikusten, ala? ... Mireio!, ekatzu katilu bat, eta zuek, arin mahaira, arean nekatuta be bazagoze-ta.

—Goazen, bada, hara —esan eban otzaragileak. Eta semea ta biak jagirik harritzko mahaiaren ertzera hurreratu ziran eta eurentzat ogia ebagi eben. Mireiok, maratz eta mazal, baba txikar txalin bat olioan ondu eta lasterka eroan eutsen bere eskuz.

Hamaseigarren urtean ebilen Mireio. Iturri zaharreko aldats oztinak, Brauko muinoak, Crauko zelai lauak, ez dozue zuek eguno ikusi beste neskatarik haren politik. Eguzki alaiak zabalduriko lora murgila zan. Haren arpegi bakun eta guriak matrail bakoitzean zulo txiki bat eban, eta haren begirunea, izar argia baino garbiago ta leunagoak, edozein nahigabe uxatu ahal izateko inontza zan. Txorta dizditsuetan erion bizkarretik ule kirimilaua ta haren bular biribi-

la ondo heldu bagako mertxika araldea zan. Jostalari, zaratatsu ta erdi-basatia. Oi! Harenbeste eskar edontzi bete uretan ikusi bazendue, hots baten edan zeunkeen.

Ohi danez, mutilak alkarren ondozka bakoitza egun hatako bere lanaz mintza ostean (landetxean legez, ene Jaungoikoa!, gure aitaren aldian legez!):

—Hots, jaun Anburtsi —esan eutsen—; ez al deuskuzu gabeon zerbait abestuko? Loak hartuko gaituzala osterantzean apariton, ez al deritxazu?

—Ixo, ene adiskideak —erantzun eban otzaragileak—; maxiolaria Jaungoikoak zigorkatuten jauk eta ezpan-uztu (putz) bategaz txantxaria legez dantzerazo. Abestu zeuok, mutilak, gazteak eta sendoak zaree-ta.

Jaun Anburtsi, ez dihardugu maxiotan —erantzun eutsen mutilak—. Hara: Crauko ardaoa ganezka dago edontzian; hots!, topa dagigun, aita!

—Ene! —esan eban orduan otzaragileak—; aldi batean abeslari ederra nintzoan, baina orain, zer nahi dozue? Martinarra zahartu egin dok eta arrazñoak hausu.

—Bai, jaun Anburtsi, atsegin egingo deusku; abestu zerbait —esan eban Mireiok.

¹ Santi Onaindia, *Euskal Literatura*, IV, 107-108.

² Lehen atal hau *Euzkadi* egunkarian argitaratu zan 1936-I-10ean.

³ Jatorriz: *umeeri*. Aurrerantzeko *-eri* plural guztiak be bizkaierazko *-ai* atzizkiak ordezkatu ditugu.

⁴ *Etsi* hemen 'jasan, eroan, aguantatu' adiereaz darabil idazleak.

⁵ Jat. *daustazue*. Aurrerantzeko guztietan be *dau->deu-* bihurtu dogu; hau da, nori-dun aditz laguntzailer iragankorraren adizki guztiak.

⁶ *Oporkaroak*: oporraldiak, bakantzak.

⁷ *Anei-neurkin*: kilometro.

⁸ *Zudu*: interes, lehia.

⁹ *Zizulo*: txixilu, zizeilu.

Kurtzeroak denporan

ELEZAHARRA

«Hildakoen lo sakonean zeutzan».

Danilo Ki?

Samarkand
begietsi genduan, atzenean.

Adreilu urdinezko kupulek
abegi egin euskuen asautik,
deiadar egingo baleuskue legez,
aurrenik.

Geroago txakurren adausiak
entzun genituan uluari.

Eta atzenean, atalasea
zeharkatzen ginoazala,
umeen negarrek
josi euskuezan
zentzumenak.

Hautsez beterik,
unaturik baina pozik,
errenditu ginan
eskaini euskuezan
lehenengo aulkietan.

Loak hartu ginduzan.

Hamar gizaldi geroago,
oraindino ez dozue erabagi
zelan amaituko dan gure peregrinazinoa,
ezta
nor garen be:
khan handiaren ostekoak
ala zetar-lapurrak
ala esklabo-saltzaileak
ala deserritu egarrituak
ala hamaika mende geroago
gomutatzea merezi ez daben
salgai arrunten merkatari arruntak.

Bitartean,
hareak aspaldi estali euskuzan
lepoak,
eta Eguzkiak honezkero
ez deuskuz epeltzen
hazurrak.


Esan eiguzue, mesedez:
Nor ete gara?

CYCLADE ISLANDS

Iparrak gorputzak umilki arintzen dituanean,
itsas hegian haizealde zagozela, gerizpean,
oinak iltzatzen dituzu hondarrezko txirlorak eginez.
Eguzkiaren argiak ez zaitu itsutzen, ez argitaratzen
esku artean daukazun liburu mardula.
«Stefan Zweig ez zan bertan izan»,
pentsau zinei,
pentsamentuak ihesi direla,
zureak eta Stefanenak.

Geroago,
kare zurizko karenek
hartuko zaitue epeletan murgil,
eta Martin itsuk joko zaitu,
arrastia zutzaz erditu daiten arte.

Orain
edan daigun
uzoa ausarki,
adiskide.



DESOLAZINO UGARTEA

*«In 1777, Captain Cook fell in with the same group [of islands],
and gave to the principal one the name of Desolation Island,
a title which it certainly well deserves».*

E.A. Poe

Gaur be
hotza hazurretaraino
sartzen jaku.
Edurrak
dana zuritzen dau,
zuriaren ganean zuri,
gure hazurrak be
klarutu beharko balitu legez,
eta sendotasun minerala emon,
harrizko enborren antzo.

Gaur be
babesleikutik
aterateko
ahalegina
egin dogu,
ez oso bizia,
halan da
be.

Haizetzeak
leuntzen ditu bazterrak,
bardintzen ikuspegiak.
Oro bardin da
orain,
lau hilabetetik
hona.

Oinatzak
galdu egiten dira;
itzalik
ez
da.
Edur
molekula
bakotxak
eroaten dau
airean
itzaldura
lotsati
segizinozkoaren
mikroi bakotxa,
eta ez da inon lotzen,
ehun mila metro karratutan
sakabanatu artean,
geometriarik
bageko geografia
honetan.

«Ondo etorri
Itsasoz Haraindiko
Lurralde Antartikoetara»

zezeltzen dogu
aldiro,
Juraçon bonbiletako
bat
edegiten dogun bakotxeko,
klik
eta
klak.

Desolazino ugar-tean
mahasti sail
eguzki-begiek
itxi eragiten deuskuez
begiak,
negarrez
urtu
beharko
bagendu
legez.

Lurmendua
eta
udabarria
urrun
eta
labur
dira.



“Buruilaren ondarra” edo “Lertsunak lerro-lerro” amodiozko kanta

Sarrera

Amodiozko euskal kantu ez oso ezagun baten berri emango dugu artikulu honetan. Aipatu dugun euskal kantua ez dugu aurkitzen kantutegi askotan, eta dituen aldaerak gutxi dira; ahapaldi kopuru handirik ere ez du, gainera, ezagutzen dugun aldaera guztietan. Beste hitzez esateko lore apal bezain arradoa da. Errimari gagozkiola, zortziko txikia dugu bere neurririk ezagunena. Kantaren edukari begiratzuz gero, “Leihopeko serenata” izango litzateke, Juan Mari Lekuonaren sailkapenaren arabera. Zer dira, baina, leihopeko serenatak? XVIII. mendeko Iparraldeko amodiozko kanten barruan sail bat osatzen dute.

Hona hitz guttitan adierazirik: mutila gauean maitearen etxera doa, eta ohetik jaiki eta atea zabaltzeko eskatzen dio. Neskak, gehienetan, ez du amore ematen eta mutila etorri den bidetik joatera behartua dago. Tankera honetako kantak, ardurenean edo ia beti, elkarrizketaz osaturik egon ohi dira. Guk artikulu honetan ezagutzen ditugun aldaera guztiak eman eta berri bat transkribatzen saiatuko gara.

Gure artikulu honen helburua, orain arteko artikuluen bezalaxe, apala da: aldaera ezagunez gainera berri bat ematea. Ez dugu poema iruzkin arretatsu bat emango, beraz.

Hitz batez: testu ederrak eskeini nahi dizkiogu aldizkari txukun honetako irakurle ederberari.

Kantuaren aldaera zabalena

Ezagutzen dugun kantaren lehen agerraldia edo aldaera inprimatua 1925eko *Gure Herria* aldizkari-koa da. Lehen agerrera horretan ez dator inolako azalpenik. *Buruilaren Ondarra* izenburuaren azpian (Uztariztarrak) zehaztasuna dakar. Zer ote da egile uztariztar batek eginga? Edo Lapurdiko bihotzekoa, uztariztarra ote da gertaera?

Kantak, lehen agerrera honetan, lau ahapaldi ditu bakarrik. Iparraldeko kanta libururik ezagun bezain aberatsenean, KKK liburuan¹, kanta bera agertzen da, baina ahapaldi bat gehiago duela. Aha-paldi hau *Federik ez duzula* hasiera duena da, KKK-ko laugarrena. Guk hemen, horretaz, KKK liburukoa aldatuko dugu. Neska-mutilen arteko elkarrizketa hobeki itxuratuko badugu, liburuan ez dauden marraz jarriko ditugu.

*Buruilaren ondarra... Jon-Doni Mikele
Maitia, ikustera heldu banaiz ni ere.
-Baldin plazer baduzu, othoi, jeiki zaitte!
Zure hor ikustia desiratzen nuke...*

*-Ez, ez, ez naiz jeikiko, seguratu bainiz
Adixkide tutzula neskatilla ainitz...
Eskerrak Jainkoari, hola libro bainiz!
Malurus behar nintzen, ni fidatu banitz!*

*-Ez dut bada ibiltzen sakelan limarik,
Ta are gutiago kontrako giltzarik...
Maitatzen ez banuzu, ez idek bortharik;
Etxera joanen nuzu jin nizan bidetik!*

*-Federik ez duzula diozu ni baithan,
Entseiatu beharko bertze zenbaitetan...
Pena handiagorik zer da mundu huntan?
Jarraiki baitzitzautzut bethi alferretan...*

*Lersunak, lerro lerro, bidian badoazi,
Beruaren lekurat, hotzaren ihesi...
Ni ere bethi penaz beharko naiz bizi;
Zonbait aho-kirets nik beharko iretsi !!!*

Atal honetan aldatu dugun kantua data batekin hasten da: Jon Doni Mikele edo san Migelen eguna. Irailaren hogeita bederatzia da san Migel, irailaren bukaera aldera edo (*h*)ondarrear, beraz. Horrexegatik hasten da *Buruilaren ondarra... Jon Doni Mikele*. Lehen ahapaldian noiz, zein egunetan joan den mutila neskaren etxera adierazten da, eta baita asmoa ere: ohetik jeiki eta atea zabaltzea. Sarrera ahapaldi horren ondoren elkarrizketa dator eta azken ahapaldiak, koplaz zaharren teknikakoak, her-tsi edo giltzatuko du kantua. Ohargarria da, gehienetan, amodiozko kantu hauek sarrera-bukaera ahapaldiez gainera elkarrizketa bat izan ohi dutela.

Ez dago esan beharrik: amodiozko kantu bat giltzatzeko modurik dotoreenetakoa irudi indartsu baten bidezkoa da. Irudiak metafora-mundura eramaten gaitu eta beste maila bat ematen dio kantari. Azken ahapaldi hau argi bezain garbi ikusten dugu. Jean Elizaldekin bildu zuen kanta puska batean *bidian* beharrean *airean* dator:

*Lertsunak lerro-lerro airean doazi
Beroaren lekurat hotzaren ihesi²...*

Ez ahal da penagarria kantu osoa bildu ez izana?

Aita Donostiaren ahapaldi bakarra

Aita Donostiak bere lagun Mayi Ariztiaren etxean, Sarako Lehetsipian, 1917. urtean, 97 urteko amona Adèle Diharasarri, gaztetako oroitzapenetan azterkatu, ahapaldi zoragarri bat bildu zion. Hona hemen:

*Lertsunak lerro lerro
Pasatzen tuzte mendiak oro.
Galtzen dutenean gida
Yoaitein dira bana bira.
Andre gaztiak, ez zaitezte
Oraiko jaun gaztien gezurretan fida*³.

Bildu zuen ahapaldi bakar hau kantaren ederrena dela deritzagu. Kopla zaharren teknikakoa izanik gorago jarri ditugun bi erduetarik desberdina da. Niri, egia esan, ezagutzen ditudan kopla zaharren teknikako ahapaldi guztien artean, ederrenetakoa iduritu izan zait beti. Edertasun honen arrazoiak bat baino gehiago dira: aparteko musikalitateagatik *ler*(tsunak) *ler*(ro) *ler*(ro)⁴ zein irudiak dakarren imajina bisual zoragarriagatik zein metafora ezin adierazkorragoagatik.

Ahapaldi hau, dudarik ez dago, izadiaren obserbaziotik aterea da. Lertsunak zeruan lerro-lerro joan ohi dira uveak edo urkuluak eginez. Uveak edo urkuluak egiten dituzte antzerek zein lertsunek: irakurri dut behin baino gehiagotan viktoriaren ueva marrazten dutela zeruan. Eta beren joanean, beren hegaldan zalapartatsuan, garrasi ozen eta erdiragari egiten dituzte⁵. Lertsunek beren buru edo gidari jarraitzen zaizkio, baina gida gabe gelditzen badira, galdu-ordean eta noranzkoa galdurik ibili ohi dira⁶. Ez dago esan beharrik: lertsunak zeruetan ihesi ikusten diren hegaztirik handienak dira, eta nekez baino nekezago pausatzen dira lurrean⁷. Honelaxe dator itzulpena A. Donostiren kantekin Jorge Riezu prestatu zuen *Nafarroa-ko euskal-kantu zaha-*

rrak liburuan: “Las grullas pasan en ringlera las montañas. Cuando pierden la guía, se van cada una por su lado, o bien de dos en dos. Muchachas, no fiarse de las mentiras de los señoritos de hoy”.

Euskaltzaindiko eskuidatzi berria

Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako bertso-papearak ikusten ari nintzela, bestetan ikusi ez nituen paper bitzuak, esku-idatziak, ikusi nituen plastikozko karpetatxoan. Paper biak liburu baten barnean omen zeuden, Josune Olabarria liburuzainak adierazi zidanez, eta gero artxibatze orduan bertso-paperekin karpetan gorde dira. Noren letra ote da? Izenean bat aipatzekotan Pierre Broussain aipatuko nuke⁸. Bi paperetako txikiak⁹ hauze dakar, hitzez hitz:

N 689

*Espeletan eman dute Chamal okerra auzapez;
Kargu hura izanez geroz, hari nehor ezin hel;
Chamal okerra auzapez,
Aurten ba, bainan berriz ez.*

*Hiru aldiz igorri du Baionara billeta,
Murde Bonneten ganik nahiz chapel baten kredita;
Murde Bonnetek galdegin diro badakien frantsesa,
Frantsesa nundik jakinen duien, Eskuara ez jakin eta.*

*Hiru ardi saldurikan erosi du chapela
Hura buruan emanikan ere, ez da gizon adreta,
Chabalkara emanikan ere, iduri du potreta.*

Kantu hau Ezpeletako Chamal delako jaun bati egindako kritika da. Chamal delakoa alkate egin ondoren harrotu egin da eta ezin zaio inor hurbildu. Bere itxura dotoretzeko, gainera, txapel bat erosi du. Txapela, pentsatzekoa denez, “sombbrero” izan daiteke eta ez “boina”, nahiz *xabalkara* hitzean,

hots, “modu zabalean” gure txapela dela dirudien. Hemen dauden hiru ahapaldiek bertso-sail jarri baten hiru ahapaldi baino ez dira, itxurak direnez. Hiru ahapaldi irregularrek zenbaki bat dute 689. Zer ote da kantutegi handi baten ia zazpirehungarren alea? Hala balitz!

Guri dagokigun kantuak N 674 zenbakia du. Paper hau handiagoa da eta ia foleo tamaina du¹⁰. Kantu honetako lehen hiru ahapaldiak hiru kantu desberdinetan agertu ohi dira. Azken biak, berriz, ez dira batere ezagunak. Hona, beste gabe, ahapaldi guztiak dauden-daudenean:

*Othe da munduan gizonik
Ni bezen malurus denik,
Egunak doanaz geroztik
Maitea, zu ganik aditurik
Ez nauzula maite, -gaur danik
Cherka dezadala bertzerik.*

*Lertsunak doazi lerro-lerro
Yoiten tuztelarik montañak oro,
Galtzen dutenean gida
Yartzen dira bana bira.
Mutil gazteak, ez zaitez tela
Oraiko neskatiletan fida.*

*Urak harria zilatzen,
Demborak gauzak kambiatzen;
Gauza zaharrak uzten ditugu
Berriak zaizkigunean heldu,
Adizkide zaharrak ere
Berritan kambiatzen dire.*

*Erran beraz, inkonstanta,
Nik uste gabeko sarjanta,
Nuntun hire promes ederrak.
Hanbat aldiz emanak,
Ehintzala joanen mundutik,
Maitaturik nitaz bertzerik.*

*Jin zeraitan umildurik,
Bihotza eskuan harturik,
Behar niodala barkatu,
Flakezaz zaiola gertatu,
Nahi ez badut errezebitu,
Serora nahi dela sartu.*

Iruzkina eskuidatziaren gainean

Lehen ahapaldiak esaldi batzuk ditu ezabaturik eskuinaldean. Lehen bertsoerloan *ni bezen malurus denik* irakurtzen da. Hirugarren ahapaldian *zu ganik aditurik* irakurtzen da ezabaturik. Lehen ahapaldia ezaguna dugu; Azkuek bere kantutegian ere badakar 541 zenbakian, 430 or.; Kantua “V. Endechas y Elegías” sailean dator. Mugerreko (L) Kase-naberi bildua. Oso antzekoa da. Hona Azkuerena: *¿Ote da munduan gizonik/ ni bezen malurus denik?/ Egunak yoanez geroztik,/ maitea /zuganik aditurik/ ez naizela yinen gaurdanik,/ xerka deza-dala bertzerik*. Ohargarria da, bestalde, Judu erratuaren kantuetan ere antzeko sarrera dagoela aldaera ia gehienetan: *Ote da mundu ontan deus ere gai denik/ judu erratuari konparatzen denik*¹¹?

Bigarren ahapaldia guri dagokigun kantukoa da baina desberdintasunak nabariak dira. Harrigarrietako bi aipatzearen *montañak* hitza da hiru silaba dituen *mendiak* normalaren ordeza. Oraingo aldaeran, gainerako aldaeretan ez bezalaxe, fidatu behar ez direnak mutil gazteak dira. Harrigarria da: amodiozko kantu gehienetan neskatilek dira engainatuak, utziak... Guri dagokigun aldaera honetan, oster, alderantziz...

Hirugarren ahapaldiak Duvoisinen kaiurretako *Urak harria bolatzen,/ Urhiak dizu zillharra dartzten./ Ni neure maitea gana joaiten,/ Neure penak hari erraiten,/ Zertarainokoan dutan sofritzen,/ Gero berak bainu konxolatzen delakoarekin du itxura.*





Lehen hasiera oso antzekoa izan arren gainerakoa erabat desberdina da. Beste ezertan berdintzen bada Duvoisinena eta gurea gaian da: biak dira despedidako kantuak.

Laugarren ahapaldia, nik gogoratzen dudala, ez dut beste inongo kantutan ikusi.

Azken ahapaldiak eskubira argibide bat eta aldaera bat duela dirudi. Zehaztasuna *Et puis sur le même air que “Behar niodala barkatu”* da. Zehaztasun honen azpian ahapaldiaren beste bukaera bat ematen du:

*Jainkoak eman dezola grazia,
aisa pasatzeko bizia,
Yeloskeriarik batere gabe,
Egiaz mintzo nitzauzue.*

Azken iritzia

“Buruilaren ondarra...Yon Doni Mikele” eta gure eskuidatzikoa kantu beraren bi aldaera ote dira? “Buruilaren ondarra” kantua “leihopeko serenata” dugu, eta gurea depedida kanta. Gurean, emakumea serora sartzen da eta engainatua mutila dugu. Neurria ere, bestalde, desberdina da, dudarik gabe. Ez ote dugu beste era batera esan behar, hau da, *Lertsunak lerro-lerro* horrekin hasten den irudi zoragarria amodiozko kantu batean baino gehiagotan ematen dela? Ez ote dugu esan behar, beste hitzez, tradiziozko euskal kantutegiko kanta-sail honetan gure irudi-estetika zaharraren erakusgarri ezin politagoa dela?



OHARRAK

¹ L. Dassancek eta Pierre Lafittek egina da. Bion artean, dudarik gabe, Dassance dugu lanik finena egin zuena. *Kantu, kanta, khantore* (Baionan: Kordelieren Irarkolan, 1967) liburuko 79-80 orrialdean datza gure kantua.

² ELISSALDE, Jean [Zerbitzari]. *Azkaine gure sorterria*. Donostia: Elkar, 1985, 101. or.

³ Leku bitan dator kanta hau Jorge de Riezu batutako *Nafarroa-ko euskal-kantu zaharrak (Viejas canciones vascas de Navarra) Selección versión comentario*. Lecaroz: Archivo P. Donostia, 1973, 154-155. eta JOSE ANTONIO DE DONOSTIA (O.F.M. Cap.). *Obras completas del P. Donostia*. Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1994, VII. libur. *Canciones*, 1000-1001 or. Hizkuntza-aren aldetik ez datoz bat bietan. Lehenean lertxunak, -AK duela dator, eta, bigarrean, lertxunek, -EK duela. Lehen iturria errespetatu dugu. Gaur egun *lertsun* “txori moeta” eta *lertxun* “arbola moeta” desberdintzen dira. Guk ere bereizketa hori gure lanera ekarri dugu.

⁴ *Lertsunak lerro lerro* (joan) esaldi egina da. Behin baino gehiagotan ikusten da dokumentaturik. Beste modu edo aldaera batzuk ere badira *kerro-kerro* edo *ker ker (ker)*. Beste alde batetik, *Lerro-lerro* antzarak ere joan ohi dira edo zikoinak, baina *lertsun* hitzarekin agertzen da batez ere literaturan. J. M. Satrustegik Luzaiden bildu zituen hitzetan “Vocabulario popular” in *Euskera*, VIII-IX zenbakian, 1963-1964, 255-283 or., honelaxe dakar lertxun hitzean: Grulla. *Lertxuna lerro, lerro!*, les gritan los niños creyendo que les hacen cambiar de posición.

⁵ Manezandi idazle zoragarriak honela idatzi zuen “Negian girea” artikuluan (*La Voz de Navarra*, 1935/10/23): *Urriaren hogoian gira, eta yadanik Iruñeko inguruetako mendi guziak beren mihise xuriarekin estaliak dira. / Lertsunak beren garra-si borthitzekin badoatzi lerro-lerro, hegoalderat, ipharraldeko erremuetarik ihes eginik, lur ephelen bilha, beren neguko bazka lekhuetarat, itsasoz gaindi Afrikaraino. / Usoak ere, trumilka, Belate-ko eta Ibañeta-ko mendiz barna bide bera derama-*

te, toki horietako oihanetan, papoak ezkurrez untsa betho ondoan phagodi eta haritztegiatan. / Hegaztin mota guzikoak badoatzi, lekhu beroetarat, eta gu, gaizo gizonak, anarthean heman egon beharko hotz ikharan, ezinbertez bortxaturik, lanarekin bizi behar dugunek.

⁶ Hemen, ezinbestean, ene buruan josirik ditudan Bernardo Atxagaren erreferentziak adierazi behar nituzke. *Bi anai* liburukoak zein *Bi letter* jaso nituen oso denbora gutxian zein Euskaltzaindiko sarrera hitzaldi zoragarriko hasiera...

⁷ Louis Dassance eta Louis Elissalde, “Eskual-Herriko hegaztinak eta choriak” in *Gure Herria*, Otsaila-Février 1925, 95-99 or.: LERTSUNA GRUE CENDRÉE (LA). *Lertsunak kaskoan eta begien inguruan ez du lumarik. Hemen gaindi ez da maiz hegaztin handiagorik ikusten. Negu hastean lerro-lerro-lerro, ikusten dugu andana ederrik, kru-kru eta kru-kru zeruetan doazila. Bardin ibilki dire gauaz. Hargatik, arras unhatuak edo errebelatuak ez badire, ez dire gure herrietan hainitz gelditzen. Suge-jale handiak dire lertsunak. Amikuzen “kurli” diote erraten: eta Chuberoan “kurullua”.*

Lertsun bat, hutsantua, (empaillé) bederen, ikusi nahi duena, doala Larresoro Gaztelurat: han bada bat. Guk ere ez dugu egundaino bertzerik ikusi... lurrean.

⁸ Piarres Xarritonen liburua kontsultatu dut *Pierre Broussain: sa contribution aux études basques (1895-1920)*. Paris: Centre National de la Recherche Scientifique, 1985. Gure kantuak ez datoz Xarritonek zerrendatzen dituenetan. Eskuidatzi baten argazkia eta gure letra erkatu ditudanean oso tankera handia hartu diet. Ezin esan, ordea, bete-betean Broussain-enak direnik.

⁹ Neurriak jakin nahi izatera: 210 mm zabalera eta 133 altuera.

¹⁰ Beste honek 206 zabalera eta 269 mm altuera ditu.

¹¹ Ideia bezala munduko pertsonarik malerusena izatea amodiozko poema askotan ematen da. Topos hau, bestalde, Erromantizismoko ideia hedatua dugu. Gure autoreetan Pierre Topet Etchahunen poemetan edo khantoreetan sarriri ikusiko dugu.

N^o 689

Epeletan eman dute Chamal oterra auzapez;
Kargu hura izango geroz, hari nehor ezin hel;
Chamal oterra auzapez,
aurten ba, bainan berrioz ez.

Hiru aldyz igorri du Baionara billeta,
murde Bonneten ganit nahiz Chapel baten kreditu;
Murde Bonnetek galdogin diru badakien frantetsa,
Frantetsa mundik jalkinen duien, Estuara ez jalkin eta.

Hiru ardi saltzuritan erosi du Chapelu,
Hura turuan emanitan ere, ez da gizon adreka,
Chabalhara emanitan ere, iduri du potreta.

N^o 674












Othe da munduan gizonik, ~~ei berriz~~ ~~erretratu~~ ~~marat~~;
xi bezen malurus denik;
Egunak doanaz gerotik, ~~marat~~, ~~guz~~ ~~guz~~ ~~guz~~
Maitea, zu gonik aditirik
Ez nauzula maite, - gaur danik
Cherka dezadala bertzerik.

Lertsunak doazi lerro-lerro
Joiten tuztelarik montanak oro;
Galtzen dutenean gida
Jartzen dira bana-bana.
Mutik gazteak, ez zaitezte
Orainko nekatielatan fida.

Urak harria zilatzen,
Demborak gauzak kambiatzen;
Gauza zaharrak urten ditugu
Berrak zaiykigunean heldu;
Adizkide zaharrak ere
Berritan kambiatzen dire.

Erara beraz, inkonstanta,
Nik uste gabeko sarjanta,
Muntun hira promes ederrak,
Kambat aldiz emenak,
Chintzola joanen mundutik,
Maitatuzkit nitzag bertzerik

<p>Jin geraitan umildurik, Bibotze eskuan harturik, Behar niudala barkatu, Flakezag zainda gertatu, Nahi ez badut iruzibitu, Terora nahi dela sartu.</p>	}	<p>et jin sin le min air gu "Behar niudala barkatu + jainkoak emen dezola grazia, air paratzeko biria, jelokieririk batere gabe, Eziz mintzo nitzaguzue.</p>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



Atezaina (zortzi garroduna)

Ez zan erreza izan lehorrerainoko bidea egitea. Itsasoa iztea ez da samurra inorentzako. Baina zer egin leike, zer beste aukera dogu? Bidoi eta olio artean bizi, gitxika-gitxika usteldu..., ala gure ingurune naturaletik alde egin eta lehorrean bizi hobea bilatu. Nire legez gaztea zaranean errezagoa da, ganera. Kemena eta indarra dagozan bitartean hartu behar dira holako erabagiak. Hortaz, familiako kide guztiak nire zortzi garroen artean estu besarkatu ostean, tinta laino baten atzean malkoak ostendu eta abiatu egin nintzan. Helmuga: gupida barik kutsatuten gaituen mundu idor eta doilorra. Ez nintzan izango bide hori hartu dauen lehen gaztea, beste askok gogoz kontra hartu daben arren, sarekada traidoreetan jausita.

Zer gitxi dakigun itsastarrok lehorreko munduaz! Gure hatx eta algen arteko herriak zerikusi gitxi dauka asfalto eta porlanezko uriakaz. Eta bertako biztanle naturalentzat bizimodua gogorra bada, zer itxaropen euki leike paper bako olagarro koitadu batek? Ingurukoen begiratu mesfidati eta higuinez beteetara ohitutea da lehen kolpe latza. Bigarrena, jabetzea mundu basati eta gorgarri honetan behar barik ez zarala inor. Diruaren txintxin hotsa dala giltza bakarra. Hamen hain oinarritzko egia dan hori aditutea be kostau egin jatan, urian inork ez ebalako olagarrez berba egiten, eta giza-kien berbakeren zurrumbiloan murgildu behar izan neban aurrera egingo baneban.

Baina ez dot nire historia kontaten inoren bihotzak bigunduteko, eta horregaitik lehenengo garai makurrenak pasau egingo ditut eta hango bizitzaz gozatzen hasi nintzan sasaira egingo dot jauzi, saltoan nire garrotxoak ez korapilatuteko kontu handia ipiniz. Gustukoago dot pozaz berba egitea, nire eskarmentua ni lako beste gazte batzuek be baliagarri euki dagien.

Igaro behar nebazan gazi-gozaok atzean lagaz, esan daigun egun baten, azkenean, eta horretaz asko dakian lagun bati esker, beharrezko paperen jabe egin nintzala. Horretarako izen bat asmau behar izan neutsan neure buruari, olagarroon artean ez dagoalako halako ekandurik, eta amamari entzundako istorioetan kontaten zanez olagarrook bereziki maitatuak ginala Japonia deritxon leku urrun baten, eta hango berbakeran *tako* esaten deuskuela, horixe aukeratu neban: Tako. Bukatu zan kalerik kale legez kanpoko edozein sasi-lan eginez bizirautea. Nire etorkizuna errotulu handiko kristal baten atzean egoan. ETT. Uriko bizimoduaz artean ezjakin samar, ez neban lar adituten zer esan gura eben hizki hareek, eta axola gitxi, ganera. Bertan, benetako behar bat emongo eusten! Zalantza izpi barik sinatu neban eskaini eusten papera, eta handik gitxira deitu eusten lagun batzuekaz alokatzea lortu neban akuarium txiki baina gozora. Hotel baten mandatu mutila behar eben, eta nire ezaugarriek egokiak zirudien.

Urduri baina neure buruaz seguru, alkarrizketara abiatu nintzan. Benetan niretzako egina zan antza eban lanpostuak. Nork eukiko eban nik baino gaitasun hoberik bezeroen maleta pisuak eroateko? Nork, gizakien artean, nik baino erretzasun handiagoa atea idegiteko behar ziran giltza guztiak ondo antolatuta eta nahastu barik eukiteko? Gizaki mangel horreen lau garro zurrunez ez dauke lehiatzerik gure zortzi garro malguakaz, ez horixe! Baina ez pentsa lehiarik egon ez zanik. Hara non topau neban, alkarrizketarako zain, itsasoan ezagututako txipiroia. Berak Txibi ipini eutsan izena bere buruari. Txipiroi jatorra. Pena emongo eustan neu izatea kalean itxiko ebana... Azkenean, neu hautatu ninduelako, Txibi koitaduak ez daukatzalako nireak lako garro indartsuak. Txipiroiek beti euki dabe gorpuzkera meheagoa. Ganera, autortu eustanez, alkarrizketan aisezi igarten jakozan umore aldaketak. Hor dabe akatsa txipiroiek: lar nabarmen aldaturten dabe azalaren kolorea umoreagaz batera, eta ez zan komeni lanposturako lotsea, sumindurea, artegatasuna-eta ondo ostenduten jakingo ez eban langilea. Zorionez, jakin neban handik laster eskuratu ebala beharra enpresa handi baten. Inpresoren tonerrak eta tinta kartutxoak beteteko eta bulegarien artean posta banatuteko kontratau eben. Poztu egin nintzan jakinda nire erruz ez zala kalean luzaroan lotu.

Behar barria ez zan gatxa. Ganera, aukera emon eustan Reinaldo Arenas idazle handiaren pertsonaiaren azalean sentitzeko. Ez pentsau itsastarrok ez dogula kultura literariorik! Gure uretara zabor piloen artean noiz edo noiz holako opari zoragariak be iristen jakuz, eta erne egon behar da hartu eta itzultzaile baten garroetan azkar ipinteko, hondatu eta betiko galdu baino lehenago. Baina konparazioak konparazio, ni ez nintzan Arenasen atezainaren moduan ate bilaketa etenbakoan.

Nik ondo nekian zein ate zabaldu behar zan eta horretarako zein zan giltza egokia.


Ez naz hain filosofo jaio, zer egingo deutsagu, ba.

Dana joango zan primeran, hango bezero eme batzuei niganako asmo lizunak biztu ez balitxakez. Pentsetako da, hoteletik pasetan ziran eme bakarti hareei, eta ez ziran gitxi holakoak gure bezeroen artean, irudimena bizten eutsiela nire zortzi garroek. Baina zer gura dozue esatea: nik ez deusat ezer erakargarririk ikusten hain azal zuri lakarra eta lau garro baino ez daukezan izaki hareei. Olagarroen senean guzurrak esatea oso barneratuta ez dagoanez, holantxe azaldu neutsan bere gelarako gura izan ninduan eme izugarri bati. Itsasoan, harrapakinak ehizatzeke amarruak egiten trebeak gara, bai, baina zurikerietan ibiltzen ez. Eme ha zein zentzutan zan izugarria, zeuek pentsau. Kontua da, logelako atea itxi ebala nire atzean, eta nik eskupekoari bentosa bat luzatuten neutsan bitartean, ez bat ez bi, biluzik geratu jatan emea, distira arraroa eukala begietan. Ahalegin handia egin behar izan neban forma ikaragarri eta ule nazkagarri haren guztien aurrean tinta txorrotada ederra botata ihes ez egiteko. Eginahal heroiko harek ezer gitxi balio izan eustan. Munstro harek ez eban, bada, kexua agertu hoteleko zuzendaritzan, bere gelan baimen barik sartu nintzala eta ganera bere soinekorik onena tintaz bete neutsala esanez! Ez dakit nondik atera eban tinta, baina nire gorputzetik ez, horraitino. Nirea, edozein itsastarrek dakian legez, askoz sendoagoa izango zan. Bai kalitate gitxiko tinta... Argi egoan emeak ez ebala ondo irutsi nire uko zintzoa. Baina zertarako balio deutsiez azalpenek ni lako etorkin mixerable bati, halako gizaki boteretsu baten aurrean? Nireak egin eban, kalera ostabere...

Dana dala, ez naz nire zoriagaitik negarretan hasten danetarikoa. Gaur ETTtik deitu deuste, beste behar bat dagoala niretzako. Eta hamen nago, jatetxe bateko sukaldetan. Gustura nago hamengo ontzien lurrunen artean. Ez da uretan egotea lakoa, baina leku txar-txarra be ez da. Argi daukat, ikusitakoagaitik, hamen be oso baliagarria izan neinte-

keala, nire garrookaz ti-ta baten egin neikealako hamengoei ikusitakoa, eta ontzi horreek guztiak batera garraiatu. Dana dala, badago arduratuta naukan kontutxo bat. Ez deusatz neurritz kanpoko garrantzia emon gura, baina lehentxeago patata eta arrautza bat entzun ditut berbetan. Ez jat gustaten niri ez joatazan kontuetan sartzea, baina ez dot saihesteko modurik izan. Hareen esanetan, gaur zan euren lehen eta azken lan eguna. Etsita emoten eben biek ala biek. Gero, goitik behera zuriz jantzitako langile bat etorri da, eta, txintik atera barik, xehe-xehe eginda itxi dauz. Ez dau bape begiramenik izan koitaduakaz. Ez ditut ostabere ikusi... Tira, ez dot arrautza eta pataten mundua ondo ezagututen, beharbada ohikoa da hareentzako holako behar laburrak eukitea.

Orain dala gitxi nigana etorri da lehenengo gizakia, eta ontzi baten sartzeko eskatu deust. Nik zintzo-zintzo bete dot agindua, ez nago lehenengo egunean itaun inozoakaz beharra galtzeko moduan... Mobidu barik itxaroteko eskatu deust. Gustura nago uretan. Ganera, gatza eransteko detailea euki dau. Pentsau dot konturatu dala itsasmina daukadala. Agian, bertan dana ilunago dagoala pentsauaz edo, ontzia estali dau. Momentuz ez dot kexatzeko asmorik, baina esango neuke ura gero eta beroago dagoala, eta nik, aukeran, hotza dot gogoko. Baina etorkinoi agindutakoa isilik betetea toketan jaku...





Llorenç Villalonga (1897-1980):

Bearn edo panpinen gela

Llorenç Villalonga Mallorcako Palman jaio zen, etxagunen familia batean. Ogibidez medikuntzari emana bizi bazen ere, literaturarako joera eta grina beti erakutsi zituen. Gerra aurreko Parisko giroa ezagutu zuen, bertan medikuntza-espezializazioa egiten ari zela. Han aurkitu zuen Proust idazle frantses sonatuaren lorratza, gerora ere iturri agorezin izango zitzaiona.

Katalanez zein gaztelaniaz idazten diharduela, Villalongak egoki kontrajartzen dio bere pentsamolde ireki, arrazionalista eta zabala Mallorcan urte haietan bizi zen giro itxi eta urriari. Hartara, erreskada luze batean lotzen dira, haren lumak ekarriak, *Mort de dama* (1931), *Silvia Ocampo* (1935) eta *Mme Dillon* (1937) eleberriak.

Gerra osteko lehen titulua *La novella de Palmira* (1952) izan zen, eta, horren jarraian, gure orrialdeetara dakargun *Bearn edo panpinen gela* (1961) eta beste batzuk, hala nola, *La Lulú* (1970) eta *Lulú regina* (1972).

Horien guztien artean nabarmentzeko modukoa da *Bearn edo panpinen gela*, bertan azaltzen baititu Villalongak Mallorcako aristokrazia zaharraren bizimodua eta dekadentzia, Bearn familiaren bidez. Agerikoa da liburu horretan Mallorcako etxagunen *Ancient Regime* delakoa, familia aberats baten kapilaua (Joan Mayol) idazle dugula. Egilearen nobelarik ospetsuena izanik ere, berehala ekartzen dizkio gogora irakurleari, Proust ez ezik, Lampedusa italiarra eta haren *Il Gatopardo* ere.

Testuari dagokionez, *Bearn edo panpinen gelak* eleberriak argitaraldi batzuk izan ditu, katalanez nahiz gaztelaniaz. Hortaz, euskarazko testu honetarako argitaraldirik kanonikoena erabili da, idazleak bere *Obres completes* (Edicions 62, 1966) lanerako zuzendu zuena, hain justu ere. Testu katalan hori argitaratu du, harrezkero, Edicions 62 argitaletxeak, eta horri egin zaio men eta arreta, fidagarriena delakoan.

BEARN EDO PANPINEN GELA

Atarikoa

Bearneko kapilaua den Juan Mayol jaunaren gutuna, Miquel Gilabert, Espainia guztien Kardinal Lehenaren idazkariari igorria

Bearn 1890

Adiskide preziatua:

Ez dakit idazti hau zure eskuetara iristen denean berri mingarriaren albisterik izango duzun; nagusiak duela bi hilabete hil ziren, inguruabar txit susmagarrietan. Harrezkero, eskribau, notario eta hartzekodunez beterik dago Bearn. Guztiek dute ardurra hildakoen ondasunetan, horiek gutxi badira ere; bakan batzuk dira, ordea, haren arimaren mesederako aitagurea esateko gauza direnak. Nik neuk ere, etxe-jagole dihardudala, ordu askerik ez dut, eta, egunaren buruan, bakar-bakarrik geratzen naizenean, espiritua erabat asalaturik izaten dut, Jaungoikoari haien alde erreguka jarduteko adorerik gabe. Hartara, goizero-goizero ematen ditudan mezak izan ezik, beste mundura joango ziren haiek zama astunik gabe. Halako uneetan badirudi giza norberekeriaren agerraldiak atea ixten dizkiola gizonaren salbamenari.

Lobak ezbeharraren ondorengo hogeita hemezortzi orduetan iritsi ziren, nagusiak hilobiraturik jada. Urteak ziren hemendik agertu gabe. Nik ziurta diezazuket, Miquel, heriotza bikoitz horrek ez dituela atsekabe handian sartu. Magdalena andreak gorai patu zituen saloiko portzelanak, eta anaiek jakin-min bizia erakutsi zuten *Sa Cavako* pinudiarengatik, moztua zela uste baitzuten. Esan gabe doa ez niela azaldu, moztuta ere, ondo salduta eta kobratuta zegoela. Azken nahiei buruzkorik ere ez nuen aipatu, Madriletik hildakoen azken testamen-

tua zein zen adierazi arte (gure artean, banekien bizi bitartean halakorik ez zutela egin). Maria Antonia andrearen bitxiak eta etxean egon zitekeen dirua ere jakiteko tirria erakutsi zuten. Epailea, alabaina, aurreratu zitzairen, eta armairu guztiak zigiluaz itxi zituen. Horrek askatu ninduen azalpenak ematetik. Loba andreak, azken orduan, panpinen gela sonatua ikusi nahi izan zuen; nik, aldiz, hildakoen borondatea zuzenago gordetzen nuelakoan, hango giltza galdua zela asmatu nuen. Begitankor joan ziren. Ez ditut harrezkero ikusi.

Are begitankorrango joango ziren jakin izatera nire gelan bertan, bi haberen artean eta ezkutuko gune batean, nagusiak, duela urte erdi eman zizkidan mila eta bostehun ogerleko ditudala. Eginbide zehatzetarako dira horiek, laster igarriko duzunez. Izan ere, nagusiak hil ostean, zu zara bihotzez estimatzen dudana pertsona bakarra. Zugan ere, konfidantza osoa dut, nire kezka eta arrangurak zuri jakinarazteko. Kontzientzia arazoa azaldu behar dizut. Pentsa ezazu, hortaz, ezer irakurri aurretik: testu honetan azaltzen dudana oro, aitortza moduan hartu beharko duzu. Nire isilpeko horiek hartzeko prest ez bazeunde, ziur naiz orrialdeok erreko dituzula aurrera joan aitzin.

Zu, Miquel, nire bizitzako adiskide izan zaitut eta zaitut. Oraintxe ere hala zaitut, adiskide hitzak izan dezakeen esangurarik zabalenean. Beti gogoratuko dut zure errukia, larritasun-orduetan jakinarazi nizunean ezbehar hura, mundutik betiko alden du ninduen. Ezagutu zintudanean Jaimerenak aste bete zuen. Ni, guraso eta neba-arrebarik gabekoa izanda, zugan aurkitu nuen anaiaren maitasuna, eta, gero ere, halako iritzi-kidetasuna, Jaungoiko gure jaunak bi gizona eman diezaiekeen dohainik preziatuena. Ez zuk ez nik (*arcades ambo*, zioen, olgeta-benetan, apaiztegiko erretoreak) ez ditugu ahaztuko elkarrizketa luze haiek, patioko basakapean, San Augustin eta Descartes hizpide genituela. Gure

adimenak batera ireki ziren moralaren mundu harri-garri horretara. Hori da tarteka-marteka bakarrik ikusten dena eta Jainkoaren izanak sentiarazten gaituena. Nagusiak noiz behinka esaten zidan –bera halakoxea zen–, zahartu ahala, nire bizitza ikertu ahala, hutsunea nabaritutako nuela, hain zuzen ere, saltsa mintsuaren osagai batena, deabruarena. Nagusiaren kontuak ziren horiek, berak esaten zituenak, hain justu ere, aintzat hartuak izan ez zitezkeen. Gogoeta gai ere baziren, dena den, halakoak.

Nagusiak arima zabala, fidatia eta irekia zuen. Haren errakuntza guztiak, ugariak izanik ere, arin-garri eta estakuruz beteak ziren, errukiarengan zuen konfidantza eta asmotik zetozelako, eta, orobat, izakiei eta izadiari zien maitasunetik. Haren haragia hautsa da dagoeneko –haragi hura, atseginik ukatu gabekoa–, eta arima da orain bakarra, Jainko biziak epaitu beharko duena. Eska dezagun haren erruak barkatuak izan daitezen.

Heriotza bikoitz horrek sortzen dizkidan zalantzak azaldu behar dizkizut. Era berean, nagusiak eman zizkidan mila eta bostehun ogerleko horiek erabiltzeko aginduak. Sinestezina da hark, gai ekonomikoetarako utzia zenak, halako diru-munta batzea, familia oso baten mantenua bermatuko lukeena. Horrek ekarri zion nekea da (jakin arren halako etxeak hondoratzen direnean beti salbatzen dela zer bait hondamenditik), izan ere, eman zizkidan aginduetan betetzeko zuen interesaren erakusle, batik bat, bera ere, urteen joan-etorrietan, ekintza-mota askotatik aldendu zenean. Hildakoen kontuak aztertzen diharduten hartzekodun eta abokatuek jakingo balute, nik neuk, garai batean zerri zaintzaile eta egun kapilau xume, meza emateaz besteko onurarik ez dudanez, horrenbeste diru gordetzen dudala nire gelan, menturaz uste izango zuten nik lapurtua zela, eta, nork daki, nagusien heriotza lepora lidaketela, bi-biak ordu baten barnean gertatu zirelako, inork halakoa sumatzerik ere

ez zeukala. Zernahi gisaz, arrisku horiek deus ere ez dira, sarri bururatzen zaizkidan kezka moralen aldean.

Aholkua eman aurretik, beharrezkoa da, alabaina, arazoa zehatz-mehatz jakitea. Nagusiak sorrazten dizkidan atxikimenduak eta fideltasunak nire irizpidea desbidera dezakete. Galdera ez da erraza, eta istorioa aspaldiko kontuetatik hasi behar dut. Estimatu handian izan nuen bizitza eder haren nondik norakoak azalaraztea, haren makur eta guzti, nire bakartasunaren aringarria izan da. Aitortu behar dut nire narrazio honen arrazoia, gau amaigabe hauetan idatzia, ez dela, agian, eskrupulu moral hutsa, ezpada galdu berri dudanez pertsona ezagun eta agurgarria berpizteko gogo. Harekin batera desagertzen da mundu oso bat, jaiotzen ikusi nauten lur hauetatik hasita. Enkantean saldu beharko dira hauek, hartzekodunek argi esan baitute ez direla zain egongo. Lobek ez dute dirurik hipoteka jasotzeko, ezta, hirietako bizimoduari egokitura, leku hauekiko interesik ñimiñoena ere. Bada, bestalde, azken itxaropena: Ameriketatik etorri berri omen da nagusiaren senide bat, kartoizko kutxekin aberastua. Gezurra dirudi kutxatxoak saltzen norbera pertsonaia bihurtzea, baina bera ospe handiz agertzen da, urrez beterik eta Mallorca osoa harritzeko adina den kotoxe elektriko batekin, dagoeneko bi ardi hil dituen. Bisita-txarteletan, izenaren azpian, *kartoi kutxak* jartzen ditu; inork ez zekien horrek zer esan nahi zuen, kutxatxo sonatu horiek zirela zehaztu arte. Bada, pertsonaia horrek –horrela deitu beharko dugu–, menturaz, finka erosiko luke, esku arrotzengana joan ez dadin. Jakin badakit nagusiei *kartoi kutxa* direlako horiek ez zitzaizela ondo iritziko. Esan ohi da, gainera, kapitalista honen ama senarrarengandik, Bearneko ardi galdu batengandik, banandua bizi zela hura jaiotzearen; horrek zeresanak sortu zituen. Adinak, aldiz, gertaera horiek hobeto ulertzera eraman nau. Niretzat, bizitzaren

erdian nagoela, kar-toi-ku-txa-dun hori arrotza izango litzateke Bearnen, baina bistan da, bestalde, une honetan ari dela eratzten belaunaldi berria, hain zuzen ere, prest dagoena lur zahar hauek kanpotik etorritakoarekin bat egin eta batuketa horren aurrean –nagusia eta lurrak, horrek erro sakonak izango litzukeelakoan– nik Jaun Toniren aurrean izan ditudan sentimendu berberak izateko. Finkaren artxi-boan ikertuz gero, horren antzekoak aurkituko genituzke, errealitatea gudan dagoelako, eta jarraitutasuna ateratzen baitu zerbait magiko eta konbentzional den zerbaitetik, hain zuzen ere, izen batetik. Jainkoak, ondotxo dakigunez, mundua egin zuen hitzaren bidez.

Nagusiak beti sortu zuen nigan zirrara berezia. Maria Antonia andreak, ona izanda ere, ez zidan egundo ere halakorik sortu. Jainkoaren eta deabruaren arteko lehia bizian zegoen nagusiaren arima, gaur egun ere ez dakidala nork irabazi zuen dema hura. Egonezin horretan datza, beharbada, hari beti izan diodan atxikimendua, eta berori izatea, menturaz, nagusiaren iritziz jatekoak atsegingarri izateko behar zuen saltsa bera. Argi diotsut, bestalde ere, auzi moral honetan bakar-bakarrik onar dezakedala nagusiaren azken nahien aurka ez doan irtenbidea.

Bestela, Erromara dei egiteko eskubidea gordetzen dut. Aita Santuak berak baimena ukatzen badit, haren erabakiaren aurrean men egingo dut: edozein modutan ere, halakoa gertatzen bada, Jainkoaren Errukiari eskatu eta berarengandik espero dut heriotzak aterako nauela nire neke eta oinazeetatik.

Arazoa hobeto azaltzeko bizitza ezohiko haren bilbatura hiru zatitan banatu dut, nobela bat izango balitz legez. Lehena *Fausten eraginpean* izenda daiteke, eta bizitzaren aldi zalapartatsuenari dago-kio. Bigarrena, ostera, mendi eta baso hauen lasaitasunean gertatzen da (ironia apur batez bada ere, lasaitasun hori, zinezkoa baino, azalekoa baita), eta *Bakea Bearnen* izenda zitekeen. Hirugarrena, bestalde, geroxeago idatzitako epilogoia edo azkena da, orainsu jazo den bisita arrotz eta harrigarri baten karian.

Azken oharraz natorkizu; izan ere, ez zaitez harritu halako azalkeriak eta gordinkeriak aurkitzen badituzu lerro hauetan. Behartuta nago nagusia bera zen modukoa aurkezten. Elizaren irizpenaren mendean jarri arren, inoiz ere ez ditut haren ekin-tzak behar den moduan islatuko; haatik, ulertezin guztien gainetik, Jainkoa dago, hain zuzen ere, ulermen eta ulerkera amaigabea duena.



Kanaberatik ugerrera

Alejandrok etxaurreko hamakan etzanda ematen ditu arratsaldeak, kanaberazko sabaiaren azpian gitarra jotzen. Aldika Pilar izaten du lagun eta ilunabarreko azken argien laztanak gorputz biluziak itsatsirik dituztela hartzen dituzte irribarre batez. Gero eta gutxiagotan gertatzen zaie horrelakorik, baina, adinak ez duelako barkatzen, badakizue. Gazte zenean Alejandro zeharo aspertu zen: pisua saldu, itsasontzi txiki bat prezio onean lortu, nabigatzen ikasi eta salmentatik soberan zeukan diruarekin munduan zehar ibiliko zela ebatzi zuen. Lehenengo Mediterraneoetik ibili zen, gehienbat itsasgizon izateko errazenetik hastearren praktikatzen. Deniatik Ibizara joaten zen eta bere garaipen txikia zen eguzkia ostendu aurretik Sant Antoniko badia aurrez aurre ikustea eta portuko taberna txiki batean ardo gorri bat edatea. Aibilezia lortu zuenean, egun batez Korsikaraino joan zen, eta bertan urrunago joatea pentsatu zuen, beste itsaso batzuetara. Deniara itzuli zen orduan, lehorretik eroan zuen barkua Donostiaraino eta Pilar bere neskalagunarekin alde egin zuen Atlantikoa zeharkatzera.

Venezuelara heldu ziren bost dolar, lau zaku arroz eta ekaitz beldurgarri bat oroimenean zutela. Alejandrok aspaldiko lagun bat zeukan Caracasen, Alberto izeneko futbolari ohi bat, eta hark laguntza apur bat eman zien harik eta bizimodua zelan edo halan ateratzen hasi ziren arte turistak Los Roques izeneko irletara euren barkutxoan eroaten. Baina berehala nekatu ziren horretaz eta Panamako kanaliz beste aldera joateko prestatu ziren. Harako bidean urte bi berandutu ziren ia konturatu barik. Karibeko paradisuak paradisuak ezagutu zituzten, ukitu gabeko hondartzak zapaldu eta azala izan zuten arropa bakarra egun luzetan. Estuasunetan ere ibili ziren, jakina, paper barik bizi ziren urruneko herrialdeetan eta sarritan gaitza zen lanen bat topatzea. Moldatu egin ziren hala ere eta bizitza nahiko zorionsu joan zitzairen. Lehengo bizimodua, baina, ahaztuz joan ziren, patxadaz.

Azkenik, iraileko egun batean kanaleko esklusek Ozeano Barean utzi zituzten leunki eta handik hainbat nabigatzailearen xede diren hegoaldeko itsasotarako bidea hartu zuten. Denborarekin trebetasun

handia hartua zuten nabigatu, haizeak profitatu eta ekaitzak saihesteko lanetan, eta horrela aparteko arazo barik heldu ziren Ekuadorreko kostaldera, eta handik Galapagoetara, Polinesia aurreko euren azken geldialdi amerikanora. Uharte bolkaniko horiek atzean utzirik, amaiera bako itsaso atsegin bat zeukaten zain, eta olatu txiki eta brisen laguntasunarekin ur garden eta atoloien erresumara iritsi ziren. Lehenengo Tuamotu, gero Tahití, ondoren Markesak, Tonga... gaztetasun eta abenturarako garra pizturik zeukaten barruetan eta urte batzuk hala eman zituzten irlarik irla papaia jaten eta jendearen beroa sumatzen.

Baina gauza denen amaiera heltzen den lez, aingura botatzeko unea ere heldu zen. Gertatu zen, Pangaien zeudela, Tongan, Esteban Alejandroren anaia nagusiaren bisita izan zutela. Hilabete batzuk eurekin pasatzera etorri zen, eta egun batzuen buruan, lekuarekin txoratuta, zintzo galdetu zien Alejandro eta Pilarri ea zergatik ez ziren Ozeaniako txoko horretan geratzen. Ez zebilen batere oker. Hala egin zuten, beraz, eta hantxe jaio ziren kanaberazko portxea, jatetxe txikia, turista eta marine-lentzako paellak eta patata tortillak. Hantxe jaio zen Alex ere, eta ordutik hona urteak presa barik igaro dira begien aurretik. Arnasa bare hartzeko momentuz beteriko urteak, ilunabarrean solas egiteko eta boleroak kantatzeko urteak.

Alejandroren bizitzak amets goxo baten itxura du. Eguzkiaren, ur turkesen eta bihotz oneko jendean paradisuan bizi da. Baina hain da amets, ezen ametsak gauak atsekabez betetzen dizkioten. Ametsotan zarataz beteriko hiri batean bizi da; gabardina higatu batekin ibiltzen da euri lohi baten azpian kale estuetatik. Ilunpean esnatzen da goizetik, manillak eta sarrailak zabaltzen ditu une oro eta putzu sakonak diren begi-zuloei so egiten die leiho gabeko komuneko ispiluan. Bere amesgaiztoetan egun osoa ematen du garita batean sartuta, autohilerria ematen duen leku baten atean. Bere amesgaiztoetan ez dago Pilarrik, ez Alexik, ez paellarik, ez barkurik, eta etxaurreko hamakan barik, bakarbakarik oheratzen da dena horma den pisu goibel batean. Soilik orduan izaten du bakea.

Emeki hartzen du loak eta amets egiten du esnatu egiten dela, eta irla eder bateko zeru urdin garbia ikusten duela. Hondartzaren ondoko etxe batean bizi da eta arratsaldeak kanaberazko sabaiaren azpian gitarra jotzen ematen ditu. Aldi-ka bere adineko emakume izugarri eder bat izaten du lagun eta ilunabarreko azken argien laztanak gorputz biluziak itsatsirik dituztela hartzen dituzte irribarre batez. Gero eta gutxiagotan gertatzen zaie horrelakorik, baina. Badakizue, adinak ez dio inori barkatzen.

Poemak

HOZKA

Laztana
ete da
eguzkiaren
fereka;
ur tanta,
mosuaren
arrastoa.

Beldur
begiak zabaltzeari,
fantasiak
lausotuko diralakoan.

Inurri batek hozka egin deust.
Ez nau
pazientziaz ase,
halan be.

GAUEZ

Mamarro gautxori,
inguma, momo, mamu
uuuuuuuuuu?

Norberaren baitako korridoreetan gaizto
noraeezan, noranahi, alderrai
ai, ai, ai...

Ilunaren sabeletik erne dira,
arrazoien ihesi,
ikarak.
Gauetz.

Gauetz.
Ez, ez, ez.
Gaur ez.
Ez.
Ezzzzzzz.
Sssssssssssssssssssss?


BITSETAN


Bizipenak bitsetan
bizi,
maitasunean.

Hotsikarak
Ikusiko zaitudala
Irudi dodan unean.
Kalanbreak
Begiratzten
Deustazunean.
Lurrikara
Gura barik
Alkar ikutzen dogunean.

ZEGAZ?

Zeugaz
ala
zeugaz nagoan sentimenaz;
zeugaz
ala
zeure lagunaz;
zeugaz
ala
zeure denboraz;
zeugaz
ala zeure berbeaz;
zeugaz
ala
zeure beharraz
Zegaz zoratu ete naz?





KARMELE JAIO. *Amaren eskuak.*
Elkar, 2006. 188 or.

Lehenengo lehenengo

VII. Igartza saria irabazi eban nobela hau fazi leidutekoa da. Gehiago be esango dot: penaz geratu naz 188. orrialdera ailegau eta liburuaren atzeko azalari buelta emon behar izan deusadanean.

Liburu honetan personaia bi agertzen jakuz lehenengo planoan, Luisa ama eta Nerea alabea. Baina nik ez neuke esango liburuan ama-alaben arteko hartu-emonak azaltzen jakuzanik, alabearena da-eta abots bakarra. Ama ospitalean dago, jentea ez dau ia-ia ezagutu be egiten. Luisaren iraganeko pasadizoak eta gorabeherak kontetan dira, baina personaia hori ez jaku hurrekoa egiten, ez deusagu kariñorik hartzen. Hori dala-ta, liburuko ama AMA lez hartuko neuke, hau da, sinbolo lez. Orrialdeok irakurrikeran, norberak bere ama dakar gogora. Nereak sentiduten daue-na nork ez dau inoz sentidu? “Eta, berriz ere, denborari atzera eragin nahiko lioke orain, bideoari atzera ematen zaion modura, amak emandako besarkada haietako batean lotuta geratzeko.” (127. or).

Baina personaia horreez ganera, badagoz beste batzuk be, besteak beste, Dolores, Luisaren ahiztea; Lewis, Nerearen senar ingelesa; Maialen, Nerearen alabea; Karlos, Nerearen gaztaroko mutila eta Maitte, Nerearen laguna. Baina horreek guztiak personaia lauak dira; gehiago ezagutu gura doguz, baina ez jaku horretarako aukerarik emoten. Hori dala-ta, personaioak hain azaletik auzketzen direan lez, esango neuke ez direala benetan sinesgarriak.


Orrialdeotan gehien gustau jatan gaurzetako bat Luisaren eta Nerearen artean errealdadearen bilaketan egiten dan jokoa da. Ama errealdadearen bila dabil ospitalean, lehenaldiko mamuakaz burrukan, gaur egun inguruan daukana ezagutu ezinik. Nerea be errealdadearen bila dabil, eta amaren burrukak begiak zabalduazoko deutsoz. Halan da be, errealdadea tupustean topetea ez da samurra izaten.

Izan be, Nerea gaur egungo andrea da. Beharra lehenengo planoan ipinten dau, lanez ganezka dago, eta familia bigarren mailan geratzen da. Baina bizimodu hori ez jaku gustetan Nereari, egiten ez dauzan gauzen damu da. Maialen alabea alde batera itxita dauka, baita Lewis senarra be: “Ama hitza idazterakoan Maialeni burutik zer pasatzen ote zaion igartzten saiatu da. Zein ama den hori. Etxean noizbehinka agertzen dena; lo egitera doanean askotan etxean ez dagoena. Bera haurra zen garaian ama eta etxea gauza bera ziren. Amaren erreinua zen etxea, amaren babesa bilatzeko lekua. Baina orain Maialenek ezin identifikatu etxea amarekin.” (130. or).

Orrialdeok josteko, errealdadea-iragana jokoa erabilten da. Etengabeko saltoak egiten dira iraganeko istorioen eta gaur egungoen artean. Baina nire ustez, klimaxa dan unera iristen danean, hau da, Nereak bizimodua aldatzeko ebatzia hartzen dauanean, liburua bat-batean amaitzen da, eta nik aurrera egitea gurako neuke. Hainbat eta hainbat galdera erantzun barik geratzen dira, esate baterako: zer pasetan da Nereak bere bizimodua aldatzea ebatzen dauan unetik aurrera? Zer lortzen dau Nereak ebatzi horregaz? Aldaketea onerako edo txarrerako izan da?

Ekintzaz betetako istorioa irakurri gura dabenek ez leukie liburu hau esku artean hartu behar. Baina ekintza handirik egon ez arren, prozesu bat kontetan jaku: bizitzako gauzarik inportanteenak zein direan konturatu arte Nereak egiten dauan barne ibilbidea. Nire eretxian, nobela honek gogoeta egiteko gonbita egiten deusku danori: emon lehenasuna benetan garrantzia dauken gauzei, beste guztia bigarren mailan itxita. Behin baino ez gara bizi, eta gero damutzeak ez dau ezertarako balio.

Arantza Eltxebarria Ilurrate



LEONID N. ANDREIEV. *Zazpi urkatuak*. Alberdania / Elkar, 2006.

Euskaratzailea: Jose Morales

Errusiar literatura gozatzeke

Leonid Nikolaievitx Andreiev errusiar idazlea Orel urian jaio zan, 1871n. 1917ko urriko iraultza ezkerro Finlandiara erbesteratuta, bertan hil zan, 1919an. Andreieven lanak bat datoz XIX. eta XX. mendearen hasikerako Errusiako literaturaren urrezko aroagaz, behintzat sasoi haretako izen handien artean agertzen jaku. Gorkiren gustukoa eta Txekhov-en jarraitzaile sutsua izan zan Andreievek eragin handia euki eban Errusiako gizartean, batez be, bere antzerki lanak medio. Elebarrigilea eta ipuingilea be, honetan bertan, ipuingintzan, benetako maisu lanak jadetsi ebazan. Errusiako ipuingintzaren joera barritzaileko idazlea izan zan. Ospe handia lortu eban eta bere lanek polemika handia piztu eben, gai labainkorrak, bape bigunkeriarik gabe, jorrotzen ebazalako. Danerik leporatu eutsien: sakrilegioa, pornografia, iraultzaren aurkako jarrera... Nikolaievitx Andreiev sinbolismo errusiarreko idazle nabarmen-tako bat izatera heldu zan, Poeren sinbolismoa eta Maupassanten naturalismoa buztartuz. Bere lanetan personaiei barne bizitza eta gogo-aldartea nabarmentzen ebazan, personaiei alderdi psikologikoa. Txekhov-en lanetan moduan, eguneroko gauza xumeen tragediak ipinten ebazan agirian, oso modu groteskoan ipini be, ezkorkeriari bide zabala emonez. Erritmo motelaz, bere personaiek munduan dihardue, itxuraz, ezer gertatuko ez balitz lez, pathos tragikotik urteterik ez balebe lez. Baina itxurako mundu geldo horren azpian salaketa eta kritikarik zorrotzena ostentzen da. Izan be, Andreiev-ek ez eban ezkututzen bere lanen kutsu politikoa, tsarismoaren kontrakoa erabat, bai eta iraultza boltxebikearen kontrakoa be, narratzaileen bidez hala moduzko neutral-tasunari eutsi nahi baeutsan be. Heriotza zigorraren aurka azaltzeak, ekintzaile politikoak personaia nagusi bihurtzeak eta edozein sistematatik kanpoko jentearen bizi-modu latza erretratatzek agirian ipinten dau sasoiko errusiar erregimen zaharraren eta gizartearen krisialdi sakona.

Jose Morales itzultzaileak Literatura Unibertsala bildumarako euskeratu dauan *Zazpi urkatuak* bildumak Andreiev-en hiru ipuin luze dakar: izenburu bereko *Zazpi urkatuak*, *Ilunpeak* eta *Espektroak* izenekoak. Ipuinok ezberdinak izan arren, ezaugarri komunei eusten deustie; hau da, danetan tonu ezkorra agiri-agirikoa da; gaien aldetik be danetan bakardadea, zortasuna, heriotza eta bildurra adierazoten daben ideia eta egoerak presente dagoz oso. *Zazpi urkatuak* ipuina heriotza zigorraren kontrako salaketa gordina dogu, personaiek heriotzara dorezan arrazoiak aztertu baino gehiago egileak banan-banako erretratu zehatza egiten deusku, kondentuen barne munduan murgildu eragiten deusku hur dagoan heriotzaren aurrean zer sentitzen dan jakin daigun. *Ilunpeak* ipuinak, barriz, prostituzio munduan baneratu eta ekintzaile politiko baten konbikzio eta sinismen guztiak kolokan ipinten dauz. Gizakiak bere patua aldatzeko dauan ahalmenaz dihardu. *Espektroak*, azken ipuina, zortasunaren gaineko hausnarketa dogu, gizakiaren ilunpera eta infermura egindako bidaia.

Zazpi urkatuak bilduma honek beti harrigarria jakun errusiar literatura gozatzeke beste aukera paregabe bat emoten deusku.

Alvaro Rabelli